



**ITSASONDOKO
UDALA**

MENDEKOTASUNA BALORATZEKO ESKAERA (MBB) ETA BALIABIDEETARA BIDERATZEKO RAI

Zer da? Autonomia fisikoa, sentsoriala, psikikoa edo intelektuala falta dutelako edo galdu dutelako mendekotasun egoeran dauden eta eguneroko jarduerak, batez ere bakoitzaren zaintza, egiteko laguntza behar duten pertsonak duten mendekotasun mailaren balorazioa

Nork eska dezake? Gipuzkoan errolatuta dagoen eta Espainiako nazionalitatea 5 urteko antzinakotasunarekin duen edonork. Azken horietatik 2 urte eskaera egin aurrekoak izan behar dira. Mendaron tramitatzeke, Mendaron errolatuta egon behar du.

Aurkeztu beharreko agiriak

1. Eskaera.
2. Eskatzailearen NANaren fotokopia edota ordezkariarena dagokionean.
3. Eskatzailea adin txikikoa bada, familia liburuaren fotokopia
4. Ezintasunen bat izanez gero, pertsona horren izenean eskaera aurkeztu duen pertsonak esleitua duen legezko ordezkariak egiaztatzen duen agiria.
5. Osasun-txostena, (osasun zentroak telematikoki bidaliko du) edo Foru Aldundiak hau lortzeko baimena.
6. Osasun-txartela.

Nola eskatu daiteke?

- Aurrez-aurre: Itsasondoko Udalaren Gizarte Zerbitzuetako sailean aurrez zita eskatuz. Astelehen eta ostiraletan: 09:00etatik 13:00etara | Asteazkenetan (Gizarte Zerbitzuetako administraria): 09:00etatik 12:00etara.
- Telefonoa: 943.881.170
- Email-a: gizarte@itsasondo.eus

Araudia

- 39/2006 Legea, abenduaren 14koa, Autonomia Pertsonala sustatzeari eta mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa (299 zenbakidun Estatuko Aldizkari Ofiziala, 2006/12/15ekoa).

- 174/2011, Errege Dekretua, 2011ko otsailaren 11koa, 39/2006 Legean xedatutako mendekotasun egoera baloratzeko baremoa onestekoa. (2011ko otsailaren 11ko 174/11 Errege Dekretua). - 320/2007 Foru Agindua, apirilaren 25ekoa, mendekotasuna baloratzeko baremoa eta hura zehazteko jarduera prozedura ezartzen duena (82 zenbakidun Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 2007/04/27koa)